

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA



Tartanga  
Lanbide Heziketa  
eskolaren ikasleak  
gara. Startinnova  
sarearen bitartez  
gure etorkizuneko  
proiektu profesional  
posiblea aurkeztuko  
dizuegu.

Uste dugu gaur  
eguneko ikaskuntza  
sisteman gabezi bat  
dagoela. Dena  
ordenagailuz eta  
Internetaren bitartez  
egiten dugunez eta

liburuak bakarrik fisikoki existitzen direnez atzera pausu bat dela uste dugu, horregatik liburu onlineko aplikazio bat sortzea erabaki dugu.

Ezin dugu ahaztu gaur egungo klima aldaketak oso nabariak direla, horregatik ahal dugun neurrian lagundu nahi dugu. Gure enpresaren barruan adostu dugu paperaren kontsumoa murrizteko.